

**2018ko KULTURA ONDAREA SARIAK  
PREMIOS KULTURA ONDAREA 2018**

2018-06-12 Vitoria-Gasteiz 12-06-2018

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburuok, sailburuordeak, zuzendariok, Ikastetxeetako zuzendari eta ordezkariok, irakasle, ikasleok, eta ikasleon senitartekok, jaun andreok, arratsalde on eta eskerrik asko lehenik eta behin, parte hartzeagatik eta zorionak irabazleoi.

Aurten, Kultura Ondarearen urtea ospatzen ari gara European, “Gure ondarea: iragana eta etorkizuna biltzen duen elkargunea” izenburupean.

Urtean zehar hainbat ekimen sustatzen ari dira ondarearen garrantzia nabarmentzeko. Europar Batasunak gazteak jarri ditu jomugan eta Euskadin apustu horrekin bat egin dugu. Helburu horrekin sortu zen orain dela lau urte Kultura Ondarea Saria, teknologia berriak baliatuz kultura ondarearen garrantzia nabarmentzeko eta hedatzeko. Horixe izan zen proiektu honen motibazioa eta hemen daude emaitzak, zuek zarete eredu.

Kultura ondarea ez da urrutiko edo iraganeko zerbait. Ondarea ez da zerbait zaharkitua, aspergarria. Kontrakoa deritzot, gizakiak munduan uzten duen arrastorik behinena izan ohi da kultura ondarea, Xabier Lete gogora ekarriz “jakintza eta argia, gizakiaren inguru latz bat menperatzeko premia” horretan.

Kultura ondareak gure berezko nortasuna islatzen du, aurrekoengandik jasotako herentzia baliogarria baita. Zuen parte hartzeari esker gaurkotzen eta berritzen duguna.

Agradecemos vuestra participación en este compromiso con la cultura y con nuestro patrimonio. Habéis trabajado duro, en equipo, habéis aportado vuestro conocimiento y vuestras ideas. Habéis combinado creatividad y tecnología para actualizar y modernizar la visión del patrimonio cultural. Gracias a vuestra aportación toda la sociedad va a conocer y comprender mejor algo que nos es propio y queremos preservar a futuro.

Ondarea modu zabal eta ireki batean ulertzeko eskatu genizuen. Izan ere, kultura ondarea ez dira bakarrik nekez zutik mantentzen diren antzinako aztarnak. Arbasoengandik jasotako tradizio edo adierazpide biziak ere badira kultura ondarea: ahozko tradizioak, ospakizunak, gizarte-usadioak edo dantzak adibidez.

Kultura ondarea dinamikoa da eta belaunaldi berrien konpromisoari esker etorkizunera begiratzen dute. Herri honetan horren adibide ugari ditugu: Santa Maria Katedrala, Bizkaiko Zubia edo San Telmo Museoa. Ondo baino hobeto ulertu duzue ikuspegi anitz hori.

Barakaldoko Minas Institutuko lagunek gaur egungo Europan behar-beharrezkoa den mezu bat ekarri digute: gizarte guztiak izan gara etorkinak, gure herria ere, eta mugaz gaindiko joan-etorri horrek ondare bat uzten du han eta hemen.

Gracias al Instituto de Barakaldo por hacernos comprender que la inmigración forma parte de nuestra propia identidad. Vuestro trabajo nos aporta una forma diferente de ver la realidad y de poner en valor la aportación de tantas y tantas personas a la cultura de nuestro País.

Durangoko Maristak ikastetxeko ikasleek iragana eta etorkizuna lotzen duen hariaz hitz egin digute. Frederic Chopin-en doinupean, Axular-en 'Gero' liburua ekarri digute eta gure altxorra mantentzeko garrantziaz hitz egin digute.

Gracias al Centro Maristas de Durango por hacernos disfrutar de la literatura con la música, y viceversa. Habéis utilizado vuestra creatividad para actualizar dos clásicos y demostrar que la cultura sigue siendo un tesoro.

Donostiako Bidebieta Institutuko ikasleek gutun zahar baten bitartez Gerra Zibilaren ankerkeriaz hitz egin digute, erbesteaz, baserrietako lehengo bizimoduaz. Oroimenaz, azken finean. Eta oroimena oso presente izateko beharraz.

Gracias al Instituto Bidebieta de Donosti. A través de una carta nos habéis hecho comprender lo que significa el dolor de la guerra o la dureza del exilio, entre otros mensajes que hemos podido comprobar en el video también. Ante todo, nos habéis trasladado la importancia de preservar la memoria, tenerla muy presente, porque conocer el pasado significa construir un futuro mejor.

Gracias a todas y a todos. Gracias a vuestras ideas, a vuestro esfuerzo personal, a la creatividad y al trabajo en equipo. Vuestra mirada joven convierte

en realidad una aspiración europea: conseguir que el patrimonio cultural sea punto de encuentro entre el pasado y el futuro.

Kultura ondareak belaunaldi berrien konpromisoa behar du oraina eta etorkizuna bermatzeko. Hori da zuek guztiok lortu duzuen, “jakintza eta argia”, hori da gaur eskertzen eta aitortzen duguna.

Barakaldo. Durango. Donosti. Zorionak eta eskerrik asko!